

Euskadiko enpresaburuak Txilen

Txileko Santiagon, 2016ko azaroaren 19an.

Distantziari buruz gauza anitz idatzi da. Adibidez, distantzia ahaztea dela. Seguru nago zuetako askok inoiz bakardadearen sentipena izan duzuela etxetik urrun. Gaur, ordea, distantzia hori bizigarria da eta, euskaldun bezala, eragingarria elkartzen gaituena, asko, hain zuzen ere, azpimarratzeko. Hala diot, jada jakingo duzue, euskaldunok, normalean, gure gorenoko euskaldun maila lortzen baitugu beste euskaldun batzuekin sorterritik urrun aurkitzen garenean. Harro-harro jartzen gara eta bat-batean alkandora txikia gelditzen zaigu eta ez gara sartzen.

Beraz, batzuetan mingarria den distantziak gaur indarberritzen gaitu. Hemen, zuen artean, neure burua ikusteak niri, behintzat, suspertzen dit eta indargabetuta nago zuen enpresen alde eta, aldi berean, Bizkaiaren alde hemen bizia uzten ari zaretelako. Ildo horri eutsiz, zuen enpresak ondo badoaz, Bizkaia ere ondo doa. Beraz, guztion alde ahaleginak batuko ditugu.

Nire presentzia Txilen, batez ere, koherentzia egintza bat da, emandako hitza bete behar baitut. Bizkaitik beti kanpora irtetera animatu dizuegu. Ekonomiaren, teknikaren eta pertsonaren ikuspegitik lagundu dizuegu. Nik eredu izan nahi nuen. Ezin dizuet kanpora ateratzera eskatu, ni etxean gelditzen naizen bitartean. Erakundeek eredu izan behar dugu. Horregatik gaude hemen. Maletarekin batetik bestera, zuen modura. Produktua saltzen. Bakoitzak berea eta nik neuk guztiena, hau da, Bizkaia.

Agian, gehiegi sartu naiz “saltzailearen” eginkizunean, baina bakarrik saltzen den produktua dugulakoan nago. Ziur diot hori: herrialde bezala gure historiaren unerik hoberenean gaude. Inoiz ez gara orain bezain ondo izan. Egun hauetan guztietan behin eta berriz errepikatu dut Bizkaia inbertitzeko eta inbertitzaileak ziurtasun osoz egiteko toki paregabea dela. Ahal izan dudan grina osoz kontatu diet herrialde honetako lehendakariordeari, hiru ministrori, inbertsio funtsei, Senatuko presidenteari, alderdi politikoetako ordezkariari, enpresaburuei... Aukera lurraldea gara, baina sinistu behar dugu, baita guztion artean landu ere. Oso handiak gara, baina munduarekin alderatuz gero, oso herrialde txikia osatzen dugu. Ezin dezakegu bakoitza bere aldetik joan, akatsa litzateke. Elkar lor dezakegu; bakoitza bere aldetik aritzen bada, ez.

Halaber, herrialde honen harrera azpimarratu nahiko nuke. Ez gara edozein tokitara etorri. Oso lotura sendoak batzen gaituzten herrialdera iritsi gara. Euskal presentzia antzemateko mende asko jo behar dira atzerantz. Euskaldunak oso-osorik daude integratuak Txileko gizartean eta goi mailako erantzukizunak hartu izan dituzte beren gain eta oraindik hala dira. Hori aldeko beste puntu oso garrantzitsu bat da, konfiantza dosi hori erabat beharrezkoa baita negozioak egiteko.

Herrialde adiskidea izateaz gain, Txile aukera herrialdea da. Latinoamerika merkatu handia da eta Txile kontinente honetan sartzeko plataforma ederra. Asteartean Herri Lanetako ministroak, Alberto Undurragak, esandakoa jakinarazten dizuet:



“Txilen 13.000 milioi dolarreko zorroa dago eragile berrien zain. Eta eragile berrien artean eraikuntzan eta finantzazioan Bizkaiko enpresak egotea espero dugu. Orokorrean, Euskal Autonomia Erkidegoko eta, bereziki, Bizkaiko inbertitzaile berriak erakartzeko interesa dugu”.

Inbertitzaile batzuek balio seguruak nahi dituzte. Gure industria balio segurua da, industria horren atzean enpresaburu eta langile nahiz administrazio arduratsuak baitaude. Bizkaiko Aldundiak lurralderako sektore eragileak bultzatuko ditu: energia, automobilgintza, aeronautika, manufaktura aurreratua, bikaintasunean prestakuntza baztertu gabe. Bizkaia munduarekin eta aukera zentroekin konektatzeko gure apustua egiazkoa da.